


# GASTEIZ GEU

GEU elkartearen babesarekin

81.zk.  
1999ko  
iraila



FRANKEO ITUNDUA 48/27



**ARRISKUA**  
**Gasteizko**  
**atarian**



# glebe



- **LIBURUDENDA**
- **PAPERDENDA**
- **ALDIZKARIAK**
- **FASZIKULUAK**
- **PRENTSA**
- **EUSKAL MUSIKA**
- **BIDEOAK**
- **OPARIAK**
- **PUZZLEAK**
- **JOKU DIDAKTIKOAK**
- **ETA ABAR...**

“Euskara eta kulturaren alde  
profesionaltasun osoz”

**Benito Guinea, 2 • Tel.-Faxa: 945 25 75 14  
01003 - Gasteiz**



**4. orr.**  
**Termometroa.**  
**Fotonotizia.**



**6. eta 7. orr.**  
**Berri**  
**Laburrak..**



**8. orr.**  
**Kalea Mintzo.**



**9. orr.**  
**Garoñaren**  
**arriskua...**



**12. orr.**  
**Koldo Zuazoren**  
**azken liburua**



**16. orr.**  
**Piti-Pata:**  
**Pailazoak**



**18. orr.**  
**Ipuina: "Miamiatik**  
**Euskal Herrira"**



**19. orr.**  
**Kontseiluaren**  
**berriak**



**20. orr.**  
**Llanos anaiak:**  
**Dominaren bila**



**22. orr.**  
**Asier**  
**Salcedo.**



**24. orr.**  
**Neu "Bat"**  
**musika taldea**



**28. orr.**  
**Udalaren Kirol**  
**eskaintza.**

**GEU GASTEIZ, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria**

**Erredakzioa:** Pedro Asua, 2 - 3.a - Telefona eta Faxa: 945 22 21 53  
**Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño, Estitxu Breñas eta David Alvez.  
**Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain. **Argazkiak:** Edorta Sanz.  
**Maketa:** Izadi Editoriala. **Komikia:** Iñigo Sarasola.  
**Kolaboratzaileak:** Ania Ibisate eta Iñigo Kastresana.  
**Publizitatea:** Karlos Fdz. de Betoño. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

*Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) - Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 - Franko Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzunkizunik.*



**Gasteizko Udala**  
Kultura Saila



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**PREMIAZKO TELEFONOAK**

**S.O.S. DEIAK:**

..... 945 112

**UDALZAIINGOA:**

..... 945 092

**INFORMAZIOA:**

..... 945 010

**SUHILTZAILEAK:**

..... 945 16 11 11

**GURUTZE GORRIA:**

..... 945 22 22 22

**D.Y.A.: ....**

..... 945 23 10 20

**ERITXEETAKO URGENTZIAK:**

..... 945 24 44 44

**AUTOBUS GELTOKIA:**

..... 945 25 84 00

**RENFE: ....**

..... 945 23 02 02

**AIREPORTUA:**

..... 945 16 35 91

**ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:**

..... 945 28 20 00

**HIRI-BABESA:**

..... 945 16 11 61

**UDALETXEA:**

..... 945 16 11 00

**FORU ALDUNDIA:**

..... 945 18 18 18



**Kan Groak**

**Zerrenda berria osatuko dugu. Bertan agertzea nahi izatekotan deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira eta zehaztu zure ordutegia.**

Hile honetarako *geure* termometrorra, hozkailuan sartzeko noski, ekarri dizuegun kontua (Iñigo Kastresanak Geura hilero igortzen duen informazioetik ateratako testua) oraingoa ez bada ere aipatzea ezinbestekoa jo dugu, datorren urtean halakorik berriro gerta ez dadin eta denboraz has daitezzen egin beharreko zuzenketak bideratzen.

Aurtengo errentaren aitortpenaren garaiari hara hurbildutako zenbait lagunek ezusteko galanta jaso zuten: "erdaldunak 'a la planta baja' bidaltzen zituzten bitartean, euskaldunok 'beherapen solairura' joanarazten gintuzten. Baina gero ez zen ez merkealdirik, ez beherapenik..., pena baizik, guztiok bezalaxe ordaindu behar genuelako. Hori bai, euskaldunok 'nagusi atetik' sartzzen ginen".



E. B. Z.

**Geu**

**SALMENTAK / ALOKAIURUAK**

Lokal bat alokatzen da tailer artistiko, artisautza tailer edo bitelgira, hiri erdialdean, 20 m<sup>2</sup> ingurukoa eta oso ekonomikoa. 945 26 41 78 (15:00etatik 17:00etara Elena).

Errentan uzten da Opakuako mendian, Araba, 100m<sup>2</sup>ko etxola, 6000m<sup>2</sup>ko zoroan kokatua. Informazioa: 945 30 10 27, bulego ordutegian, Isabel.

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 2.000 ptan saltzen dut, dendatan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 28.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handia eta sendoa da, ia batera erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 8.000 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. 945 28 10 67.

CANON 1000 F bi objektiborekin 35-80mm / 80-200 mm salgai. Oso modernoa aukera askorekin. Oso ondo dago, kutiziatatik aldatu nahi dut. 40.000 pta. Tf.: 945 28 10 67.

Lanpara bat dut salgai sarrerari ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da. 945 22 73 03 Maite. Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana.

**BESTEAK**

Ume bat zaintzeko, pertsona euskalduna behar da. Deitu 945 28 82 42 telefonora irailaren lehenengo astean edo saiatu irailaren 20tik aurrera.

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta haurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamendua alokatzen da uda honetan, hondartzara ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Pertsona euskalduna behar da 2 ume zaintzeko, 16:30etatik 18:45etara. Hilean bi asteartetan eguerdian ere bai (12:30etatik 18:00ak arte). Gavez deitu 945 24 55 40 telefonora.

Umezain euskalduna behar da Gasteizko Lasarten. Interesatuak deitu 945 147 417 telefonora 15:00etatik aurrera.

Datorren ikasturtean ume bat zaintzeko pertsona bat behar dut, orduren batean goizez eta ordu batzuetan arratsaldean. Maite. 945 22 73 03

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxoetik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

**DEIAK**

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zator Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66.

Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatari kalea, 29, behea.

**Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53**

**OLARIZU MENDI**  
  
**HERRIKO TABERNA**  
 JOSE URUÑUELA  
 KALEAN

**GASTEIZKO**  
  
**IRUBIDE**  
 RAMIRO DE MAEZTU  
 KALEAN  
 HERRIKO TABERNA  
**HERRIKO TABERNAK**

**ALDE ZAHARRA**  
  
 "SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

## FOTONOTIZIA

Lakua-5, uztailaren erdialdea, bertako jaiak uztaileko lehen asteburuan ospatu ziren, udalekuetara joandako umeak etorri berriak, gehienen gurasoak oraindik lanean, pizkina, futbola, monopolya, esku-pilota, bideoak... eta egun batean zerbait diferente egin behar. "Eta, azokatxo bat egingo bagenu?". Pentsatu eta egin -umeek eurek bakarrik: eskulanak (eskumuturrekoak, mototxak, marrazkiak...), jostailu erabiliak, aita-amek emandako zenbait pitxikeria... "Eta, lortzen dugun dirua?" Hasieran merienda bat egingo zutela esan, baina handik minutu pare batera: "Eta erdia `pobreentzat´ emango bagenu?". Laster pobreak kosovotar bihurtu ziren eta, berehala `erdia´ %100 bilakatu. Hiru egun ilusioz beterik azokan lanean, eta tartean "El Periódico de Alava"n ideia azaldu zen, umeak pozaren pozez datorren



urteko ekintzetan pentsatzen hasi zirelarik. Merendola ere egin zuten, aita-amak `enrolatu´ ziren, batek baffleak atera eta musika jarri zien... eta denok dantzara! Gurasoak ez ziren laguntzaile bakarrak izan, baita "Vafer" eta "La Terraza"ko jendea ere. Eskerrik asko antolatzaileen partetik guztioi! Auzoko batek -Maria Luisa izenekoabidalitako testu honetan ekimenaren inguruko hainbat iritzi ere -guztiak ekimenaren aldekoak- agertzen ziren, baina leku faltagatik, pare bat baino ez doazkizue: "Oso ondo egon da. Nik `eskabadorá´ nahi nuen eta..." (Julen, 3 urte); "Ondo dago, baina umei azaldu beharko genieke gose-mapa delakoa. Hortaz aparte, Kosovoko egoera iparamerikarrek bideratu beharko lukete, azken batean beraiek txikitu dute herrialdea" (Javier, 55 urte).

# erosotasun guztiak zure esku

bakarrik 14.900 pta.n

Multilens lente-kaxa 2, disoluzio bakarreko pote 2 eta lenteak eramateko kutxa 2. Estreina itzazu hilero eta froga ezazu zein erraza den horiek edozein jardueratan erabiltzea. Eskura ezazu zure 6 hilerako packa eta eraman ezazu koltxoneta zoragarri bat opari moduan.\*

CIBA Vision

Travel Club txartelarekin puntu bikoitzak lortu ahal izango dituzu



ZERBITZU OPTIKOETAN  
1a

**MENDIA OPTICA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**

# Alarma egoera



Udal Txakurtegiak, Animalien Babeserako Zentroak 1.200 txakur hartu ditu azkenengo zazpi hilabete-etan, aurreko epealdiko portzentaia dexente igoz. Antza, txakurren eraso-en inguruan agertutako berri eta eztabaida, animalia arriskutsuei buruzko legea egingo omen den aurreikuspena eta gizartean sortutako alarma egoeraren eraginez inoiz baino animalia gehiago utzi dira txakurtegiaren esku. Animalien Babeserako Zentroaren esku utzitako txakurren artean %10 doberman, rottweiler eta pit-bull arrazakoak direla nabarmendu behar da, nahiz eta arraza nahasturiko txakurrak izan salaketa gehien bitzen dituztenak.

Normalean, jakina denez, udan abanadonatzan dira txakur gehien,

baina aurreko martxoan errekorra bete da, 215 txakur iritsi baitziren udal zentrora. Abuztuko datuak oraindik ezagutu gabe, uztaila arte hartutako 1.200 txakurretatik 700 baino gehiago jabeek beraiek eraman dituzte txakurtegiara eta besteak kaleetan galdurik zeudelako heldu dira.

Abandonoen berri txarrarekin batera puntu positibo bat azpimarratu behar da: inoiz baino jende gehiagok jo du Txakurtegiara txakur bat adoptatzeko. Hala ere, eta ustez arriskutsuak diren arrazako animalien bila espreski doan jendea ere badagoela kontutan hartuta, txakurrak emateko orduan kontrol zehatza izango dutela adierazi dute udal arduradunek.

Animalien eskubideak defendatzen dituzten taldeen iritziz berriz, datu hauek ikusita arrazoirik gabe baino gizartean alarma egoera sortu dela baieztatzen da. Txakurren erasoek erantzule eta errudun bakarria dutela gogortu dute, jabea, eta arazoari modu egokian heldu beharrean txakurrak kriminalizatzeko bideari ekin zaiola salatu dute.

## Idea bikaina

Udaleko ordezkariak Andre Maria Zuriaren plazako landarean hartu nahi zituen jendearen artean banatuko zirela adierazi zutenean gehienek ideia goraipatu zuten aurreko urteetan Zeledonon jaitzieran lore landatu berriak zapaldu eta hil egiten zirela gogoratuz. Udalak plan zehatza egin zuen: goizean lorazainek landaturik zeuden ia 5.000 landareak aterako zituzten, mahaietan jarri eta 11etatik aurrera eskatzen zutenei emango zioten poltsatxo batean sartuta txukun-txukun.

Hala ere, 10,30tan ez zen banatzeko ezer geratzen. Jendea Andramari Zuriaren plazara iritsi zen deialdiak zehazten zuen ordua baino dexente lehenago eta lorazainek landarak prestatu baino lehen lurretik atera zituzten etxera eramateko. Oraindik gehiago, Andra Maria Zuriaren plazan lorerik geratzen ez zenean batzuek Dato kalera jo zuten bertako lorapoteetan zeudenak hartzeko.

Lorak Zeledonon jeitsiera baino lehen erretiratu eta jendeari ematearen ekimenak harrera ona izan zuen arren, gertatutakoa eta gero ezin jakin datorren urtean zer gertatuko den.

## Artea ala tortura?

Urtero bezala, uda eta herrietako jaiekin batera zezenketak iritsi ziren Euskal Herriko hainbat tokietara. Eta zezenketekin batera horien aurkako adierazpen eta mobilizazioak. Gasteizen zezenketen aurkako kontzentrazioa egin zen Andramari Zuriaren egunean zezen plazaren aurrean arratsaldeko 5,15etan, jaietako lehenengo zezenketa baino lehenago beraz.

Kontzentrazioa baino lehen ATEA, animalien eskubideen alde lan egiten duen taldeak jaietako ekitaldi askotan animaliek jasotzen dituzten tratu txarrak eta bereziki zezenketak salatu zituen. ATEAko ordezkariak zehatz-mehatz eta pausuz pausu azaldu zuten zezenek sofritzen duten prozesua, beraien ustez plazatarara joaten den jendeak ez baitu animalien sofrikarioa ikusten, edo mespretxatu egiten du. Zezenketaren zehar zezenak izaten dituen erasoek helburua bakarria da: animalia zutik mantendu, baina gero eta ahulago. Helburua lortzeko bost arma mota erabiltzen dira, zezenak bi litro odol galtzen ditu eta heriotz luzea du. Azken erasoak 40 zentrimetroko espata luzeaz egiten da. Teorian toreroak zezenaren bihotza bilatzen du, baina aurkitu birrikak aurkitu ohi ditu gehienez; ondorioz zezena itota hiltzen da. Puntilla beharrezkoa denean ere ez da derrigor amaiera izaten, askotan zezena hil beharrean nerbioak paralizatu baino ez baitu egiten.

**TXUSTA**  
**TABERNA**

ESPEZIALITATEA:

**BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea **GASTEIZ**

**Xabier**  
**taberna**

musika ona  
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



eguneko menua

# Adinekoentzako hiri ideala

Populazioaren azken zentsuak agertzen duenez, Gasteiz zaharrentzako hiri eroso eta erakargarria da. Horrela, iragan urtean 65 urtez gorako 200 bat lagun zentsatu ziren bertan, aurreko urteetako datuak bikoiztuz. Gehienak, %50a Bizkaia eta Gipuzkoatik datoz eta familia dute Araban.

Honenbestez, Arabako hiriburuko populazioaren batz besteko adina 40 urtekoa da, eta dagoeneko 65 urteko gizon-emakume gehiago dago 14 urte baino gutxiagoko neska-mutil baino. Arriaga-Lakua eta Sansomendi dira auzorik gazteenak, 31 urteko batz besteko adinarekin eta Judimendi zaharrena, 44 urtekoarekin.

Adineko jendearekin batera lan bila dauden gazteak ere etortzen dira Gasteiza aukera berriak aztertzeko. Izan ere, kanpotik etorritakoei esker hazi da Gasteizko populazioa.



## Erantzun bila

Gertakizun ilun batek hautsi zuen jaien aurretiko azken egunetako lasaitasuna. Udaltzaingoak atxilotu eta gero ospitalera larri eta koma egoeran iritsi zen 28 urteko gaztearen kasua soka luzea ekarri du hil guztian zehar.

Udaltzaingoak berak azaldu duenez, taberna batean atxilotu zuen gaztea, bertako jabearen deia jaso eta gero; mutila oso urduri zegoela eta bortizki aritu zela gaineratu dute.

Ignacio J.H gazte atxilotuarekin ziholan lagunak, senideek eta Gao Lacho Drom elkarteak -zauritutakoa ijitu arrazakoa da- adierazi dutenez berriz, mutilari asmak eman zion poliziaren jipoi latza jaso eta gero. Ignaciorekin zegoen lagunak azaldutakoaren arabera, poliziak ez zion zauritutakoari laguntza handia eskaini asmaren eraginez arnasestuka zegoenean eta esposaturik eraman zuten ospitale bertaraino, bere egoera larria zen arren. Gao Lacho Drom elkarteak Udala eta



Udaltzaingoaren jarrera salatu du gainera senitartekoei emandako tratuagatik, informaziorik ez dutela jaso esan baitute.

EH eta PSE-EEko Udal Taldeek Lehendakari-tza Batzordearen bilkura deitu zuten gertakizuna aztertzeko. Bi alderdiek atxilotutako gaztearen familiaren iritzia eta Udaltzaingoa entzutea beharrezkotzat jo zuten. Udaltzaingoak aldiz ez du barne ikerketarik egingo gertatutakoa azaltzeko, bere arduradunen ustez kasua epaitegiaren esku egotea argituko dela pentsatzeko nahikoa berma delako. Abuztuko oporrak eta gero gaia berrartuko da.

## Inguru osasungarria

1994. urtetik udaro gertatu bezala Chernobilgo isurketa nuklearrak gehien kutsatutako inguruan bizi diren haur eta gazteak egon dira gasteiztar eta arabar familiekin aste batzuk igarotzen. Aurten 7 eta 17 urte bitarteko 130 bielorrusiar heldu dira Arabara.

Bertako familiekin bizitzen egon diren neska-mutilak osasuntsu daude, ez dute gaixotasun zehatzik, baina erradioakziorik gabeko ingurunean bizitzeak eta erradioakziorik gabeko jakiak jateak, aste batzutan bakarrik bada ere, onura handia ekartzen die. Horretaz gain, begi eta haginetao errebisio medikuak egiteko ere aprobetxatu dute.

1994ean Gasteizko elkarte batek Chernobil inguruko haurrak denboraldi baterako ekartzeko ekimena martxan jarri zuen eta ordutik urtez urte gero eta haur gehiago ekarri dira uda bakoitzean eta egonaldia ere zabaltzen joan da, aurten hilabetea pasatxo egon dira Araban gazte bielorrusiarrek.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



1.- Batez ere merkeagoa irtetzen delako, eta ni, adibidez, Gasteizko festetan hemen izan behar naizelako.

2.- Nik aurten ez ditut hartu, baina iraila hilabete ona izan daiteke. Hala ere, nik normalean uztailean hartu izan ditut, eta gustura egon naiz, abuztuan baino jende gutxiago dagoelako.

**Itziar Calvo. Langilea**



1.- Errazagoa eta merkeagoa delako. Orain arte abuztuan hartzeko ohitura izan den arren, aldatuz doa eta geroz eta lehenago zein beranduago hartzen dira orain oporrak. Batzuetan neguari begira ere.

2.- Nik abuztuan, tamalez, beste erremediorik ez dudalako.

**Koldo Muguruza. Giltzazaina.**



1.- Horrela jendea gehiago banatzen da, eta enpresetan abuztuan lanarekin jarraitzeko aukera dute.

2.- Ni neu ez naiz gaur egunean Gasteiztik mugitzen, baina oroitzen naiz lehen sarri-askotan irailan joaten ginela.

**Elisa Martinez. Etxekoandrea**

**1.- Zergatik uste duzu jendeak geroz eta gutxiago aukeratzen duela bere opor garaia abuztuan?**

**2.- Noiz hartzen dituzu zuk oporrak, eta zergatik?**

Iraila, normalean, opor amaieren hilabetea izan ohi da. Hilabete honetan asko dira lanera bueltatu behar izaten dutenak. Gaztetxoek gainera eskolara joateko prestatzen dira eta ez hain gazteak, burubelarri jartzen dira liburu artean irailako azterketak ahal duten moduan gainditzeko. Giro desberdina bizitzen da, bai, abuztuan. Hala ere, geroz eta gehiago dira euren oporraldi garaia irailan zein uztailean aukeratzen dutenak. Honako gaia ahotan harturik gazteitarrok honen inguruan dugun iritzia jakin nahi izan dugu.



1.- Egunak motzagoak dira abuztuan uztailean baino, eta gainera eguraldia ez da beti behar bezain atsegingarria.

2.- Nik abuztuan hartzen ditut baina lan egiten dudan enpresak behartzen naudelako.

**Guillermo Majuelo. Langilea**



1.- Prezioengatik eta eguraldiagatik. Gainera abuztuan dena beteta aurkitzen dugu eta uztailean zein irailan, aldiz, lasaitasuna handiagoa da.

2.- Nik abuztua aukeratzen dut hobeto datorkidalako.

**Nerea Cuesta. Ikaslea.**



1.- Aglomerazioak ekiditeko, errepideetan hobeto bidaiatzeko... Jende gutxiago topatzeko, azken finean.

2.- Oraingoz uztailean hartu ditut, esandako guztiagatik.

**Ivan Platas. Injeniarria.**



## Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"




Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



# Arriskua Gasteizko atarian

Garoñako zentrala 2009. urtera arte zabalik egongo da, Industria Ministerioak aginduta.



**Estatuko Industria Ministerioak Santa Maria de Garoña zentral nuklearraren jarduerarentzat hamar urteko luzapen baimena sinatu zuen. Luzapenarekin batera, ordea, ez da 1971. urtean zabaldutako zentral zaharkituarentzat segurtasun neurri berezirik hartu. Ministerioak hartutako erabakiarekin Garoñaren jarduerak 2009. urtera arte jarraituko duela ziurtatu da.**

Datozen hamar urteetan Garoñari buruzko informazioa plazaratzeko ahalmena eta bere zentralaren kontrol nagusia Nuclenor enpresaren beraren eskuetan geratu da. Beraz, zentralei buruzko informazioa publikoa den arren -epai batek horrela berretsi berri du-, berrien iturria enpresa bera izango da. "Orain arte bezala. Nuclenorren txostenetan zirrikituak daudela onartzen bada oso garrantzi gutxi-koak direla esaten da, hondakin biltegia ondo dagoela..., baina Alemaniako aditu talde batek egindako azterketak egoera aitortzen dena baino larriagoa dela zioen", azaldu du Jaime Ortiz de Urbinak, Eguzkiko kide. Tobalinako bailaran, Ebro ibaiaren ibarrean dagoen Garoña 1971ean sortu zutenean 25 urtez arituko

**"Baina Alemaniako aditu talde batek egingo dako azterketak egoera aitortzen dena baino larriagoa dela zioen"**

**Enpresa elektrikoa eta boterearen arteko harremana oso estua eta ona dela azpimarratu du Jaime Ortiz de Urbinak.**

**"Garoña inguruko bizilagunek gero eta gehiago parte hartzen dute zentralaren aurkako mobilizazioetan".**

**Emergentzia plana gezur hutsa dela jakiteak ere inguruko herritarren jarrera indartu du.**

zela aurreikusitako zuten.

Aurreikuspenak aurretik eraikitako zentralen funtzionamenduan zuen oinarria, "eta nahiz eta bizitza iraupena ezin den legalki zehaztu, 25 urteko epea ezartzeak arrazoi sendoa zuela ikusi da gerora. Izan ere, pieza asko aldatu behar izan dituzte, hondakinak biltzeko piszina 25 urteak igarota bete zen... Epea ez zen kasualidadez ezarri".

#### DIRUAREN HOTSA

Zentralaren jarduerari luzapena emateko arrazoia zein den galdetuta, zalantza izpirik ez du Eguzkiko kideak: dirua. "Zentral berriak eraikitzea oso zaila izango dela argi dago, jendearen kontrako jarrerak

ezinezkoa egingo du, horregatik, eta posible den heinean, dauden zentralen jarduera luzatu behar dute". Enpresa elektrikoa eta boterearen arteko harremana oso estua eta ona dela azpimarratu du Jaime Ortiz de Urbinak. Harreman pribilegiatu horren adibidea hilabeteroko argindar fakturarekin batera merkatuaren liberalizazioari aurre egin diezaioten laguntzeko kopuru bat ezarri dutela da, eta nahiz eta neurria legezkoa den zalantza jarri dute Europar Batasuneko erakundeek. Euskal Herrian ere harreman hori ematen dela uste du Eguzkik, Iberdrola, EAJ eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lotura adibidez hainbatetan ikusi ahal izan dela gogoratuz. Eta Endesa eta Iberdrola bera dira Garoñako jabeak, %50ean.

Noizbait agortuko den diru eta argindar iturri horretarako aukerak bilatzea litzateke enpresa elektri-

koek daukaten beste aukera bat, "baina egia esan enpresa handiek ez dute arlo hori gehiegi lantzen, dirua usaintzen duten proiektuetan sartu sartzan dira, baina ez dituzte plaka fotovoltaikoekin lan egiten edo industrietan jartzeko haize errota txikiak garatzen".

#### JENDEAREN PRESIOA

2009ra arte emandako baimenarekin Garoña ixteko aukera gutxi geratzen da, baina Eguzki eta Garoñaren Aurkako Plataformatik zentralari aurre egiten jarraitzeko beharra azpimarratu dute. "Ezin gara konformatu eta zabalik dagoenez horrekin bizi behar dugula esan. Arrisku handia dago eta buruan izan behar dugu". Jendeak arriskua gero eta argiago duela uste du Jaimek, "Garoña inguruko bizilagunek gero eta gehiago parte hartzen dute zentralaren aurkako mobilizazioetan".

## Milaka urtetarako

Orain, gaur itxita ere, Garoñaren itzala Tobalina bailaran geratuko da milaka eta milaka urtez. Estatuan zazpi zentral daude, horietarik lau -Ascó, Ascó I, Vandellós I eta Vandellós II- Katalunian, baina ez dago erradioaktibitate handiko hondakinak gordetzeko biltegirik. Andaluzian, El Cambril-en, erradioaktibitate gutxi-ko hondakinak biltzen dira; ospitaleek sortzen dituzten hainbat hondar eta zentral nuklearrek sortutakoak ere.




Erradioaktibitate handiko hondakinetarako gordelekurik ezean, horiek Garoñan bertan geratuko ziren. Hondakin erradioaktiboen iraupena milaka urtetakoa da. Horrek esan nahi du porlanean lurperatuta ere, hondakinek porlanak baino iraupen luzeagoa izanda, arriskua betikoz dela.

Etorkizunera mila urteko jautzia egin barik, izu bat baino gehiago sortu du Santa Maria de Garoña zentralak. Garai batean inoren gustukoa ez zen marka ere egin zuen: Estatuko zentralen artean programatu gabeko geldiune gehien zuena izan zen urte luzez. Eta, jakina, aurreikusita ez dauden geldiuneak arazoak egonda baino ez dira egiten.

Aurten bertan ur kutsatua isuri zen zentralaren ur hodi guztietara erregaia sartzan ari zirela. Ura aztertzea eraman zuten laborategiko hodi guztiak ere kutsatu egin ziren akats baten ondorioz. Isurketa Ebro ibaira ere iritsi zen. "Ez da egon den lehen isurketa izan, ezta larriena ere. Ibaian kutsaduraren arrastoak daude eta beste batzuetan milaka litro ur kutsatu iritsi dira Ebroraino" azaldu du Jaime Ortiz de Urbinak.

1999ko bigarren istripua ez zen zentralaren gertatu, baizik errepidean. Zentralaren piezak garraiatzen zituen kamioiak istripua izan zuen Sobronen. Segurtasun Nuklearerako Kontseiluak istripuak arazorik ez zuela sortu esan arren, erradioaktibitatea hamar aldiz gehitu egin zela jakin zuten Eguzkiko kideek, Gasteizko suhiltzaileek hala baieztatuta gainera.

Eguzkiko ordezkariaren ustez, emergentzia plana gezur hutsa dela jakiteak ere inguruko herritarren jarrera indartu du. Garoña Burgosen egonda bertako Gobernuo Babes Zibileko Departamenduaren ardura da emergentzia plana, baina 28 urte eta gero puntu ilun asko daude plan horretan; adibidez, istripurik gertatuz gero, Frias-eko kanpina hustu beharko zela dio planak eta 200 lagun inguru egongo lirakeela aipatu da, baina egia dena da udan 1.000 pertsona inguru egoten dela; honez gain, balizko istripu bati aurre egiteko banatutako iodo pastilak kadukatuta zeuden banatu ziren momentuan; egoera larria emango balitz berriak, aholkuak eta aginduak irratiz emago lirakeela dio emergentzia planak, baina zehaztutako irratit batzuk ez dira inguruan hartzen; kutsadura arriskuan biziko zirenek herri zehatz bateko eskolan duxatu beharko zutela zehazten da, baina dutxa horiek ez dute funtzio-



natzen edo ur hotza baino ez dute... "Gauza da 28 urteetan zehar ez dutela larrialdi planik garatu eta ez dutela simulaziorik egin. Gauzak horrela, ez da luzapena ematea ulertzen", kexu da Jaime.

#### EUSKO LEGEBILTZARRA, SALBUESPENA

Jendearen eskakizunek erakundeek Garoñari ezetza ematea lortu dute neurri batean. Euskal Herriari dago-kionez, Arabako Batzar Nagusiek aurtengo otsailean Garoñaren itxiera eskatzen zuen proposamenari baiezkoa eman zioten, Gasteizko Udalak hirugarren aldiz berretsi du zentralaren kontrako proposamena eta Nafarroako Gobernuak ere Garoñaren kontrako jarrera agertu du ofizialki eta aho batez. Horretaz gain, Errioxako Parlamentua eta Aragoiko Gorteak ere zentralaren kontra agertu dira.

Eusko Legebiltzarrak, berriz, EAk Garoñaren itxiera eskatuz proposa-

tutako mozioa atzera bota zuen. Gasteizko Legebiltzarrean izandako eztabaida oso pobrea eta topikoz beterik egon zela deritzo Eguzkik, Garoña "kubatei" bota beharreko jela egiteko ere beharrezkoa zela entzun zelarik, talde ekologistako kideek esan bezala. Jarrera hau jeltzale eta Iberdrolaren arteko harremanaren frogatzat jotzen dute Eguzkikoek.

Erakundeek onartu eta sinatutako mozioek balio sinbolikoa baino ez dute egun, "baina positiboak dira, hori erdiesteko lan handia egin delako". Hala ere, Garoña goi mailako negoziaketetan sartzea proposatu du Eguzkik; kupoa, autobideetako bidesariak eta milioien banaketa eztabaidatzen den foroetara zentralaren egoera eramatea, alegia.



*Leire Lopez de Aberasturi*  
*Edorta Sanz*



## GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA



"Arabarrak euskararen herrian" izenburua du Koldo Zuazo irakasleak plazaratu duen azken liburuak. Eibartar honek Filologia Hispanikoak eta Euskal Filologia ikasketak egin ditu, eta Dialektologia eta Soziolinguistika irakasten du EHU-n. Bere azken ikerlan hau "Arabian euskararen alde diharduten guztiei" eskaini die, eta hortaz, ahalik eta euskara errazenean idazten saiatu da, edozeinek ulertzeko moduan. Liburuaren eta euskararen inguruan mintzatu gara Koldo Zuazorekin.

## KOLDO ZUAZO:

# "Arabarrek lotsa eta konplejuak galdu dituzte euskaraz hitz egiterakoan"

• Eibartarra izaki, nondik dator ki-zu zuri Arabako euskararekiko ardura hori?

- Hasiera batean interes zientifiko batengatik izan zen. Esaten zen Arabako euskara Bizkaieratik guztiz apartekoa zela, beste euskalkiekin zerikusirik ez zuela, eta hori dela eta, pentsatu nuen interesgarria izango zela Bizkaia ondoko hizkera bat ikertzea. Eta horrela ekin nion Arabako euskara ikertzeari. Apurka-apurka Arabako jende asko ezagutu dut,

eta egun, ez da soilik interes zientifiko huts batengatik. Izan ere, niretzat pozgarria da Arabian euskarak izan duen gorakada eta euskararen alde zelako lana egingen den ikustea.

• Azken liburu honek zerikusirik ba al dauka orain artean idatzi dituzun artikulu eta ikerlanekin?

- Baditut bi artikulu jende ikasiarantzat direnak, hots, gai honetan jantzia dagoenarentzat. Horregatik Jon Maiak, Arabera argita-

letxeko arduradunetako batek, esan zidan jende arruntarentzat euskara errazean eta edozeinek ulertzeko moduan zerbait egiteak mereziko zuela. Eta orduan, Arabera editoriala eta Araba Euskarazeko antolatzaileak ados jarri ziren, eta liburu hau idatz nezan proposatu zidaten.

• Liburuaren lehen zatian aipatzen duzu XVI. mendean Arabian euskara hitz egiten zela, Gasteizen izan ezik. Eta XVII. mendean, ordea, gaztelaniak bide luzea egina zeuka-

99/00 euskara ahora ahora euskara



|                  |            |
|------------------|------------|
| Jose Mardones, 8 | 945 263540 |
| Peru, 8          | 945 226050 |
| Arana, 30        | 945 252400 |

- ✓ Egunean 2, 3, 4 eta 5 orduko ikastaroak
- ✓ Maila guztiak, EGA eta MINTZA ere bai
- ✓ Autoikaskuntza ikastaro bereziak
- ✓ Irakasle izateko Glotodidaktika ikastaroak
- ✓ Ordu-tegi guztiak
- ✓ Ordaintzeko erraztasunak
- ✓ Matrikula prezioa: 147 pta. orduko
- ✓ AIZU! aldizkaria ere etxean jasoko duzu

**AEKn matrikula zaitetz**

la eta euskararekiko nahiko atxiki-  
mendu eskasa zegoela. Zer gertatu  
zen, bada, mende bateko epe  
horretan?

- Horixe bera da ez dakiguna.  
Baina jakin badakigu, hiriburuan  
burgesiak ez zuela euskara era-  
biltzen eta hortaz, hiriburuko  
prestigio hori herrietara  
zabaldu zen eta haiek ikus-  
terakoan Gasteizen ez zela  
euskaraz hitz egiten, eurek  
ere euskara alde batera utzi  
eta gaztelaniaz egiten hasi-  
ko ziren. Horrela, pixkanaka-  
pixkanaka herrialde o-  
sora zabaldu zen hori, bai  
XVIII. bai XIX. mendean.  
Pentsatzen dut Arabako  
iparraldean euskara hobeto  
mantentzearen arrazoia i-  
zango zela bai Gipuzko-  
arekin eta bai Bizkaiarekin  
hartuemana izango zutela,  
eta haiekin ulertu ahal  
izateko euskara beharrez-  
koa zutela. Halere, argi ikus-  
ten da, XVIII eta XIX. mendeetan  
euskarak atzera egin zuela.

- Beraz, zuk diozunaren arabera,  
pentsatu behar dugu gipuzkoarrei  
eta bizkaitarrei zor diegula  
Gasteizen euskara mantendu izana?

.- Badira Gasteizko lekuko batzuk  
diotenak XIX. mendean euskaldu-  
nak bazirela, eta nire ustez ziu-

rrenera beti egon direla. Oñatitik  
eta Leitzetik beti egon da  
Gasteiza joateko isuri bat, izan  
ere, eskualde horretan bizi dire-  
nentzako askosaz hurbilago dago  
Gasteiz, Bilbo eta Donostia baino.  
Horregatik diot euskaldunak,  
gutxi edo asko, beti izan direla



Gasteizen. Beraz, horrek eragina  
izan zuen neurri batean  
Gasteizen euskara mantentzea.

- 60. hamarkadan, alde batetik  
Gasteiz EAeko hiriburu bihurtzeak  
eta bestetik, Arabako Kanpus  
Unibertsitarioa sortzeak inmigrazio  
uholdea eragin zuen Arabara.  
Inmigrante gehienak Espainiakoak  
izateak Arabako euskalduntze pro-

zesua moteldu al du?

- Ez dut uste erru guztia kanpotar-  
reiei egotzi behar diegunik.  
Kontuan hartu behar dugu, Araba  
garai horretan erdalduna zela, eta  
beraz, oso neketsua eta zaila da  
herri erdaldun batean, goizetik  
gauera hizkuntzaz aldatzea.

Halere, nik uste dut Araban  
urrats handiak eman direla  
euskararen alde... kanpotar-  
reiek zein neurritan oztopa-  
tu duten hori? Egia esan, in-  
migrazioa bat-batean eman  
zenez ez zuten aukera izan  
Arabaren integrazteko.

Adibidez, badira batzuk  
euren burua euskalduntzat  
ez dutenak, eta bai ordea,  
espainoltzat. Eta agian hor-  
rrek bai, horrek oztopa  
dezake euskalduntze proze-  
sua Araban.

- Liburuan behin eta berriz  
aipatzen duzu, Euskal He-  
rriko hiriburuen artean Araba  
dela euskaraz gutxien egiten den  
herrialdea, baina Arabako egoera  
ez dela gainerako herrialdeekin  
konparatu behar. Araba, bere ira-  
gana eta orainarekin alderatu behar  
dela. Zergatik hori?

- Kontua da zenbait arabarren-  
gan nabaritu dudala nolabaiteko  
kompleju bat, beti begiratzen  
dituzte bizkaitarrak, gipuzkoa-

# ITURRIETA

## Sagardotegia



**HURBILDU !  
ETA UDARAZ  
GOZA ZAITEZ!!!**

**Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO**

# Ka La MUA

**TABERNA**

Obdulio Lpz. de Uralde  
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16  
01008 Vitoria-Gasteiz

rrak...hobeak bailiran, edo euskaldunagoak, eta euren burua atzean ikusten dute. Eta gauzak ez dira horrela. Kontuan izan behar dugu, Gipuzkoa eta Bizkaia beti izan direla euskaldunak eta Araba ez. Beraz, Arabak bere dinamika propioa daroma eta beste herrialdeekin ezin da alde-ratu.

- Liburuaren bigarren zatian -Arabako euskararen ezaugarriak- azaltzen duzu Arabako euskararen ezer berezirik ez zegoela aintzinako lekukoaren arabera, eta horregatik, euskalki deitura ez diola inork eman Arabako euskarari. Koldo Mitxelenaren tesi bati aurre egiten diozu baieztapen horrekin, ezta?

- Bai, halaxe da. Mitxelenak orain dela 41 urte aurkitu zuen hiztegi bat, dirudienez Gasteizen egindakoa. Berak konparatu zuen Gasteizko hiztegi horretako euskara Bilboko idazle batzuk sasoi hartan egiten zutenarekin. Eta jakina, ikusi zuen Gasteizko euskara diferentea zela. Nik diodana da ezin dela alderatu Gasteizko euskara Bilbokoarekin, bi muturretan daudelako. Hobe dela konparatzea Gasteizko euskara Oñatikoarekin, Arrasatekoarekin edota Bergarakoarekin. Hori eginez gero, ez dugu desberdina den sentsazioa, antzekoak baitira euskara horiek. Izan ere, Arabako euskara eta gaur egun Deba arroan hitz egiten dena antzekoak dira.

- Liburuaren beste atal batean aipatzen duzu 80.hamarkadatik aurrera euskarak aurrerapauso esanguratsuak eman dituela Araban, gero eta euskaldun gehia-



go baitago. Gaur egun nola ikusten duzu egoera, eta etorkizuna?

- Etorkizunaz hitz egitea zaila da. Baina behintzat ikusten da urrats inportanteak eman direla, batik bat lotsa eta konplejuak galdu direlako. Egun, euskara kaletarren hizkuntza da, gazteen, unibertsitarien hizkuntza... Izan duen iritzi txar hori, alegia, euskara artaburu edo baserriarren hizkuntza bezala identifikatze hori, aldatu da, eta aldaketa hori oso positiboa izan da. Alta, pazientzia handia izan beharra dago, oso zaila baita ohiturak aldatzea, eta beti pertsona batekin erdaraz hitz egin baduzu, zaila egiten da euskaraz berba egiten hastea.

- Hala ere, bestelako arrazoiak ere izango dira, ohitura faltaz aparte, euskara gehiago ez erabiltzeko. Alegia, erakunde publiko gehienetan erdara hutsa darabiltzate, euskaldunok leku askotan ezin dugu euskaraz hitz egin...

- Halaxe da. Araban eta Nafarroan, eta zer esanik ez Iparraldean, erakundeei gehiago

eskatu beharko genieke eta dagoneko exijitzen ari zaie. Errespetu bat exijitzen zaie eta halaber, euskara politikarekin ez nahastea ere. Hizkuntza bat hikuntza bat delako. Arabari dagokionez oso jarrera negatiboa egon da zenbait politikorengandik. Baina hori aldi berean izan da jendea berotzeko eta euskararen alde bultzatzeko beste arrazoi bat.

- Bukatzeko, Koldo, liburu hau nori zuzendu nahi diozu?

- Araban euskararen alde diharduten guztiei eskaini nahi diet liburua, eta espero dut gero eta gehiago izatea. Ahalegindu naiz euskara errazean idazten, azalpen argiak ematen... Era berean, Arabako 16-17 urteko neska-mutilentzat, esaterako, euren herriaren egoera jakiteko modua izatea nahiko nuke. Gainera, liburua -lehen partea batik bat- arabarrentzat ezezik, edozein euskaldunentzat ere interesgarria dela uste dut.



*Edurne Begiristain*

*Edorta Sanz*

**RAFA TEJA ATELIER**



"Zetazko eta kotoizko ehunak eskuz margotuak"  
- ZAPIAK -

**Arantza Arregui**

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

**ARTEPAN**



Artisan  
Okindegia eta  
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

*vitrales*



**MIKEL  
DELIKA**

**BEIRATE  
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1  
Tfno. 945 14 64 10  
GASTEIZ



## APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

**1 x 2 = 2**

(2.000 gara / 4.000 izan gaituzke)

**... EGIN ITZAZU  
HARPDEDUN**

**HARPIDEDUN!:** zure aita, ama, arreba, izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagarreba, amagarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

Izen Deiturak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

P.K.: \_\_\_\_\_ Tfnoa.: \_\_\_\_\_

Herria: \_\_\_\_\_

Jaiotze Data: \_\_\_\_\_

Lanbidea: \_\_\_\_\_

Kontu zenbakia (20 zenbaki) Titularra. \_\_\_\_\_

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia \_\_\_\_\_

EZ GALDU OPORRAK EUSKARAZ  
BIZITZEKO AUKERA  
ETA EGIN ZAITEZ GEU GASTEIZ  
ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!!

**EUSKARAZ IRAKURTZEA  
EUSKARAZ BIZITZEKO  
PARADA DELAKO!!!**

Geu Gasteiz Aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a  
01008 - Gasteiz. Tfno: 945 22 21 53



## GURE ARTISTA: DAVIDEN KOTXEA

Rally-ak ez dira bakarrik Karlos Sainzenak, beste era batekoak ere badaude eta. Horretarako David eta bere lagunek kotxe telegidatuekin sortu ohi dituzten rallyak baino ez ditugu ikusi behar. Harean, errepidean... izugarrizko irristatzeak eta abiadura biziak hartzeko, kotxea irauli egin gabe noski, kotxe telegidatuekin trebea izan behar duzu.

Davidek San Cristobal auzoko parkeetan, eguraldi onak lagunduta, bere kotxe txikiarekin handik hona dabil bere abilezia landuz.

Eta halako kotxeak zure alboan ikusiz gero, ez larritu oso ondo zuzenduta dago-eta.

## ZER DIRA ZURETZAT... PAILAZOAK?



JOSEBA, 3 URTE

Pailazoak txikiak dira, kolore askotakoak eta kantatu egiten dute. Ikusi ditudan lehenengo pailazoak Takolo, Pirritx eta Porrotx dira





**GURUTZ, 10 URTE**

Pailazoen beren bizitza osoa bidaiak egiten igarotzen dute. Nahiko barregarriak dira, baina zirkotik gehien gustatzen zaidana animaliak dira.



**GORKA, 6 URTE**

Beraien jantziak kolore askotakoak dira, zapata handi-handiak dauzkate eta aurpegi osoa margotuta daramate. Niri gehiago gustatuko litzaidake orekaria izatea pailazoa baino.



# GEURE ARTISTAK

**ODON DE APRAIZ  
IKASTOLA  
(3 urte)**



# Miamitik Euskal Herrira: Pilotari zahar baten hausnarketak

"Pilotarien Batzarraren VII. Literatur lehiaketa"ren 1.go saria

- *Mil a quinientas, mil colorao, holaxe, holaxe, segi, segi, oooso ona!*

- *¿Mister Iñaki, pour favour, despértese, tranquilo, tranquilo...!*

- *E? A! Bai! Yes! Arraioa. Berriz ere ametsetan hitz egiten. Erizain gaixoak!*

*Euskaraz hitz egiten bukatuko duzue. Miamira ailegatu nintzenez zuen hitzek ere nire belarritan zoro baten ametsak bezala jotzen zuten, ez nuen batere ulertzen.*

- *¿Cómo dice?*

*You know we don't speak in Vasc. Uhmmm... Mister Iñaki, usted ssiempre hablando pilota jokua en sueños. In Sunday podemos ir to Jai-Alai, O.K.? Mister Iñaki, what about the letter to your grandson? La carta de su nieto...*

- *Bai, bai berehalaxe hasiko naiz. Would you possibly give me a pincel and a piece of paper, please?...*

**Miami, 1998ko maiatzaren 14a**

Hobatxo maitea:

Atzo hartu nuen zure eskutitza, eta bideoa ere bai. Banekin, amak telefonoz esan zidalako, pilotan hasi zarela, baino, a zein harrotasuna pelikulan ikusi zaitudanean, frontoiko laguntxoekin entrenamenduan, monitoreak agindutako ariketa fisikoak serioz egiten. Gogoratu ezazu beti onezko gizona izateko gogor lan egin behar dela eta gaztetxo zarenez obeditu behar dituzula zintzo eta protestarik gabe guraso eta irakasleen esanak. Hemengo haurrak kontsentido hutsak besterik ez dira, helduei batere errespetu gabekoak. Ez zaitetzazu zu holako eguzki epeletako bat izan gero!

Beharrezkoak omen dituzula "Nikes" zapatila pare bat diozu, eta "Adidas" kamixeta, eta urtebetetzea aurki dagoenez ea bidaltzen dizkizudan, Miamikoak izanez dotorea-goak izango direla...

"Beharrezkoak"? Txantxangorri buru hutsa hori! Laister hasi zara harropuzkeriekin! Idazten dizun aitona zahar honek munduko frontoi garrantzitsuenetan jokatu du, eta zure adinekora zenean oinutsik zebilen!

A zer oroimenak! Gure garaian ez zegoen ez, hainbesteko tresna. Gehienetan oinutsik aritzen ginan, espartinak erosteko ez bagenuen diru askorik. Alkondara txuri-txuri, hori bai, ia goraino lotuta, mahukak jasota. Ez entrenamendu, ez ezer. Inoiz bukatzen ez diren baserriko lanak tarteka utzirik joaten ginan frontoira lagun artean jokatzera, ondo pasatzeko, beste asmorik gabe. Ez baitzegoen ez zinerik, ez diskotekarik ezta telebistarik ere.

Iluntzean, gazta eta sagardo frexkoa askaldu eta gero, alai jasotzen ginen etxera, eta sinetsi dezakezu ez zegoela

momentu horretan gizon atseginagorik. Igandetan, edo herriko festetan, gustuko neska eder baten aurrean bereizteko espartina onenak janzen genituen eta ahal bezain ondo jokatzen genuen, momentuak merezi zuelako.

Gauzak asko aldatu dira, agian batzuk onerako, baino beste asko, erabatekoki, ez. Nik ez dizuet esaten, gaztetxok, gure garaian bezala hamabietan Angelus errezzatu beharko zenuketenik, hala ere, ondo pentsatuz, ez litzateke gehiegi eskatzea. Baino esan nahi dudana da Pilota ez dala futbola, pilotalekua futbol-zelaia ez dala. Pilota jokoa beti izan da kirol liraina, ez ditu inoiz inguruan txorakeriarik behar izan, eta ez ditu onartu gainera: pilotarien harrotasuna, hitz gordinak edo hezibide txarreko jarrerak ez ziran baimentzen. Pilotalekuan hormak beti izan dira zuriak, eta orain orlegiz margotua izan arren, haien espiritua ziria mantendu behar duzuela da eskatu nahi dizuedana.

Barkatu ieza dazazu, ilobatxo guztiz maitea, botatako sermoia eta zapatilak ez bidaltzea, agian gaztaroan ulertuko dituzu erretxina honen antigoaleko ideiak. Oraingoan, polit, utzidazu aholku pare bat ematen: Ez zaitetzazu kezkatu itxura ederra lortzeko gauzak eskuratzeagatik, zu zeu bai zera ederra, eta pilotan aritzean etzazu ahaztu merezi duten kontu bakarrak senidetasuna, gauzak ondo egiteko asmoa eta besteengan errespetua direla.

Bizitza osoa pilotan ibiltzen igaro ondoren ikasi dudana oinarrizko jakintza garrantzitsuena hauxe da: buruan eta bihotzean zer duzunaren arabera halaxe jokatuko duzu. Horregatik, saia zaitetzazu gizon zintzo eta zuzena izaten, lehiakideak errespetatu, pilota maitatu eta goxo-goxo zaindu ezazu, beraren bidez zure trebetasuna ikustarazi ahal izango duzu eta.

Eskatutako opariaren ordean, Miamin lehenengo alditan jolastutako partiduko pilota bidaltzen dizut, orain arte xeratsuki gorde dudana. Ez da zuria, gaur egungoak diren bezalakoa, beltza baizik; zimur-zimurra eginda dago, nire aurpegiko larrua bezain zimurra, biok batera zahartu baikara. Baino barruan zaldiko basatia darama, zure aitona zahar honek gaztaroan bihotzean zuen bezalakoa, eta zuri, pittin, laister esnatuko zaizun bezalakoa.

Beno, udaberriko urretxindorra, bukatu beharko dut.

Denok zaudete nire gogo eta otoi-tzetan. Eman besarkada handia amari, aitari obeditu eta agur bero bat eman iezaiozu pilota eskolako irakasleari, aspalditik bere aitaren lagun ona izan ahal izatea zorientzat eduki baitut.

**Bihotzean, Aitona Iñaki.**

**Egilea: Maialen Guerrero**

# Euskara, etorkizun hizkuntza

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua aurrera eramaten ari den Euskararen Normalizaziorako Plan Estrategikoaren lehen urratsak erakutsitako ondorio nagusia "euskara etorkizun hizkuntza dela" da.

Normalizaziorako oinarri sendoa dagoela iritzi dute Planean parte hartzen ari diren eragileek.

Bai Euskarari Akordioa sinatu duten 687 eragile sozialek ekainaren azken astean ekin zioten Plan Estrategikoaren diseinuari. Jakina den bezala, Planak euskararen normalizazioaren inguruko gogoeta markoa eskaintzea eta gizarteko talde guztiak euskararen aldeko neurriak hartzea eragitea du helburu. Planaren lehen urrats honetan, 23 sektoretako eragileek gaur egun gure hizkuntzak bizi duen egoeraz hausnarketa egin eta diagnostiko bat plazaratu dute. Etorkizunerako erronkatzat jo dute partehartzaileek euskararen garapena eta euskararen inguruan gizarteak duen pertzepzioa nabarmenki ari dela aldatzen ondorioztatu dute. Euskalgintzak honen inguruan egindako diagnostikoarekin bat dator oro har gizarte eragileek egindako deskripzioa.



 E. B. Z.

**Euskararen Plan Estrategikoan dauden sektoreak: Unibertsitatea, Formazioa, Lehen Mailako Hezkuntza, Komunikabideak (Prentsa, Telebista, Irratia), Publizitatea, Mundu Asoziatiboa, Ekitaldi Antolatzaileak, Gizarte Mugimenduak, Kirol Federazioak (EAE), Kirol Federazioak (Nafarroa), Kirol Taldeak, Kultura, Zerbitzu Orokorrak eta Garraioak, Mundu Asistentziala, Osasuna, Elkargo profesionalak, Finantzak eta Aseguruak, Lan mundua, Komertzioa/Ostalaritza, Nekazaritza, Gainazal Handiak eta Denda Kateak.**

## Zenbait sektoretan diagnosian jasotako esaldi bilduma:

"Euskara bere jardueretan erabiltzen duten enpresek zerbitzu hobeak eskaintzen dizkiete beren bezeroei, enpresarako balio erantsi bat lortzen dutelarik". ZERBITZU OROKORRAK ETA GARRAIOAK.

"Langile euskaldunak enpresan sartzeak denbora eta kostuak aurreratzea suposatzen du, eurak hezitzea ez baita beharrezko". FINANTZA ETA ASEGURUAK (adibidez, Vital Kutxa, Euskadiko Kutxa, Grupo Asegurador Caixa Cataluña...).

"Handitu egin da euskararen aldeko kontzientziazioa gizartean. Ekintza publikoetan euskararen erabilerak gero eta arazo gutxiago sortarazten ditu". KIROL TALDEAK (Askatuak, Osasuna, C.D. Bidasoa, S.D.C.R. Anaitasuna, Real Sociedad, Saski Baskonia, Athletic Club de Bilbao, Alaves, S.D. Eibar, C.B. Navarra...).

"Aisialdian eta kultur ihardueretan gazteleria da nagusi eta euskaraz kontsumitzeko ohitura falta dago". "Erakunde publikoek ez dute behar beste bultzatzen eta laguntzarik eskaintzen". KULTURA.

"Ez dago nahiko baliabide ekonomikorik, ez materialik ez eta pertsonalik ere euskalduntzeko ekintza edo proiektuetan inbertitzeko. Egitasmo edo plan kontsentsuatu batean zehazturiko helburu jakinik eza ere nabari da". OSASUNA.

"Euskara despolitizatze joera nabari da gizartean". "Euskara ikasteko (euskalduntze-alfabetatzea) erraztasun handiak daude". UNIBERTSITATEA.

MERKURIO-KADMIKOAN %0a

**CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK**

**CEGASA INTERNATIONAL ALCALINA**




CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.  
Artapadura, 11 - Apdo. 355  
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

**XIXILU JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

**HEGOALDE**

 **Matrikula zaitetz !!**

**Jose Lejarreta 9 behea**  
Tfnoa 945 28 41 96  
**01003 GASTEIZ**



**Llanos anaiak, Eneko eta Hector, Sidneyko Olinpiadetan parte hartzeko ahaleginean ari dira. Horretarako urteak eta urteak eman dituzte lanean, goizetik gauera, gainera. Ez dira ospetsuak, egunero ez dira komunikabideetan agertzen, baina domina lortzeko aukera dute aurrez aurre. Haiak badakite, eta lortzeko asmoz buru belarri dihardute.**



**HECTOR LLANOS:**

**“SIDNEYKO OLINPIADETAN DOMINA LORTZEA DUGU HELBURU”**

• Sidney 2000, 2000 aldiz egin duzue amets horretan?

- 2000 aldiz baino gehiago. Bi anaiak egotea helburua den arren, zaila duzu oso hori gertatzea. Pare parean gaude biok eta lehia Zaragozako eta Sevillako triatletekin dugu. Bietatik batek Sidneyn parte hartzea ziurtzat jo daiteke.

• Nolakoa izango da Sidneyko froga?

- Sidneyko operaren inguruetan izango da. Bertako badian igeri egingo dugu (1.500 m.), eta horren ondoren, 40 kilometro txirringaz eta eta hamar korrikan. Australian negua izango da orduan eta itsasoko ura hotza egongo da.

• Bertan munduko onenak egongo dira. Zein da euren eta zuen arteko aldea?



- Aldea gero eta txikiagoa da. Munduko 40 triatletarik onenak bi minutuko aldean murgiltzen gara. Hortaz, helburua domina lortzea dugu, halere, aurreneko 15en artean sailkatuz gero, pozik itzuliko gara etxera.

• Nor da zuen kirolzaletasunaren erreduna?

- Aita-ama. Kirolzale handiak dira eta mendira igotzeko, igeri egiteko edo pilotan aritzeko grina beraien-gandik datorrigu, txikitatik, gainera.

• Zuek bezalako kirolariek suhiltzailak izateko frogak arazorik gabe gaituzte...

- Orain buru belarri ari gara lanean Sidneyko Olinpiadetan parte hartzeko, eta horren ondorioz, ez

**AMILAMIA**

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17  
fnoa:  
945 27 40 09  
GASTEIZ

jo eta ke  
**TXAPELARRI**  
**TABERNA**  
Aiztogile (Kutxi) kalean

Argazki - Estudio

**Erramu**

Heraclio Fournier, 23  
Tnoa: 13 71 02  
01006

Askatasun kalea, 5  
Tnoa: 26 19 91  
01004

ditugu gauzak nahastu nahi. Dena den, baliteke, ez legoke gaizki, ez.

- Izan ere, noiz heltzen zaie triatletei bukaera?

- Triatloia iraupeneko kirola denez, 40 urteekin aurreneko postuetan ibil daiteke. Hala eta guztiz ere, 26 urte ditudala sasoirik onenean nago, baina hori norberaren arabera da.

- Sierra Nevadan eman dituzue aste batzuk, goizetik gauera lanean?

- Egunero hiruzpalau entrenamendu egin behar izan ditugu. Zortzietatik aurrera lanean ginen, korrika, txirringa, igeriketa...



#### PARRANDARIK EZ

- Eta Granadara jaisteko betarik ez?

- Sierra Nevadan hiru aste eman ditugun arren, Granadan egun bat baino ez ginen egon. Zorionez, kirolari ugari geunden bertan eta entrenamenduaren ostean elkar-tzen ginen.

- Ba, diotenez, parranda ederrak egin daitezke bertan...

- Ezin dizut argitu, ez dugu gaua ezagutu eta. Gu azaro arte ez daukagu zer egiterik, gauz irtetzea atsegin badugu ere.

- Korrikan, txirringaz, igeri egiten; zertan ezin da hutsik egin?

- Guztietan. Alabaina, alderik handienak igeri egitean izaten dira. Ildo beretik, Sidneyko txi-

rindularitza froga oso gogorra izango dugu, antolatutako ibilbidea aldapatsua baita.

- Eta Legutioko urtegiaren igeri egiten duzuenen, ez zarete bel-dur?

- Legutiokoa, urtegiaren gainera-ko lekuak ez bezala, ez da arriskutsua. Gu hamabostean behin joaten gara eta bertan algarik ez dagoenez, lasai asko egin daiteke igeri.

- Andre Maria Zuria Txapelketan anaiak elkarrekin sartu zineten helmugan, munduko txapelketa balitz, ez dakit nik...

- Garaipenak banatzen ditugu, eta beraz, niri tokatuko litzai-dake. Ahal izanez gero, elkar-rekin goaz laguntzeko asmoz.

- Anaia txikia, arerio handia.

- Bera ni baino gazteagoa da, baina biak batera hasi ginen triatloian orain zazpi urte. Hasierako urteetan beste zeregin batzuekin tartekatzen genuen kirola, orain, berriz, buru belarri ari gara.


- Eta Arabako kirolzaleek aintza-kotzat hartzen dituzte zuen lana eta ahalegina?

- Jendea ez da ohartzen, baina guk ezin dugu horren aurrean ezer egin. Triste da, baina txaloak entzuteko domina bereganatu beharko genu-ke Olinpiadetan eta orduan gutaz gogoratuko zen bat baino gehiago. Gurean ez dago kirol kulturarik.

**"Triatloia iraupeneko kirola denez, 40 urteekin aurreneko postuetan ibil daiteke"**

**"Zoritxarrez, txaloak entzuteko domina bereganatu beharko genu-ke Olinpiadetan"**

 Ismael Diaz de Mendibil

 Edorta Sanz

**GASTEIZ**  
**DIBUtec**  
 Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

**Arte ederretarako... behar duzun guztia**

**PAPERTEGI TEKNIKOA**

**BAR KLAKÉ**



**KUTXA, 2**  
**TFNO. 143883**

**GASTEIZ**

**ASIER SALCEDO:**

# “Athleticek Lezamara joateko aukera eskaini zidan eta Gasteizen jarraitzea erabaki nuen”

lazkoan Gasteizko bi jokalaria genituen Deportivo Alavesen. Aurtengoan Siborik Bilborako bidea hartzean, bakarra genuen taldean, Pablo Gomez, alegia. Aurrendenboraldian ikusi dugunez, Pablo Gomez ez da Gasteizko jokalaria bakarra izan behar, atzetik Asier Salcedo baitator.

• Mendizorrotzan, futbol zelaia zaletuez gainezka, arerioa Athletic eta Asier Salcedo hasierako hamaikakoan.

- Egia esan, ez nuen sinesten. Hasieratik zaletuak nire alde agertu ziren eta erraztu zidaten lana. Dena den, zelaian zaudela ez dituzu jendearen oihuak entzuten, bai ordea, aldageletarako bidea hartzen duzunean, txaloak entzutea izugarria izan baitzen niretzat.

• Adurtzan jaiok Buenos Airesekoak baino arazo handiagoak ditu Alavesen lekua izateko?

- Je, je... Teorian ez, praktikan bai, zoritxarrez. Badakizu, kanpotik etorritakoak aukera handiagoak dauzka talde guztietan.

• Siborik Gasteizetik alde egin nahi ez bazuen ere, Athleticen ari da jokatzen. Zer egingo luke Asier Salcedok horrelako batean?

- Orain urte batzuk Athleticek Lezamara joateko aukera eskaini zidan eta Gasteizen jarraitzea erabaki nuen. Ez dakit zer egingo nukeen, baina ondo pentsatu beharko nuke.

• Halere, Deportivo Alavesek jokalaria ezkertiarrek behar ditu oraintxe...

- Hala dirudi. Halere, Manek du orain hitza, eta berak erabaki behar du. Nik ezkerretik ez ezik erdialdean ere jokatu dut.

• Futbola zoroa dugu azken urteotan. Munduan milaka lagun gosez hiltzen diren bitartean, futboleko milaka milioi ordaintzen dira.

- Tamalez, horrela da. Hala eta guztiz ere, jokalaria guztiak ez dira aberatsak, maila ezberdinak daude eta.



**“Kanpotik etorritakoak aukera handiagoak dauzka talde guztietan”**

**“Batzuok langile hutsak gara, beste jokalaria batzuk, berriz, aberats berriak dituzu”**

Batzuok, langile hutsak gara, beste batzuk, berriz, aberats berriak dituzu.

• Aurtengoan minutu bakan batzuk jokatuko bazenitu, pozik egongo zinateke?

- Lehen Mailan aritzea zaila izango da. Alaves Aficionados Bigarren B Mailan dago, eta bertan urte ona egitea dut helburu. 19 urte ditut egun, eta gaztea naiz oraindik.

ALKONDARA BERRIA.

• Gol batekin, norgehiagoka batekin, une batekin... egiten duzu amets?

- Jokalariak amets ugari ditu beti. Bigarren Mailan banago, igoerako gola egitea gustatuko litzaidake, eta Lehen Mailakoan balitz, mailari eusteko gola, noski.

• Deportivo Alavesek jokatutako norgehiagokaren bat gogoan duzu?

- Alavesek Rayo Vallecanoaren aurka jokatutako norgehiagoka. 3-0 irabazi genuen eta, azkenik, urte askotan sufritu ondoren, Lehen Mailara igo zen taldea. Jaio nintzen egunean aitak bazkidea egin zidan eta ordutik Alaveszalea naiz.

• Gaur deitu dizun bezain laster, elkarrizketa egiteko prest agertu zara. Futbolaria ospetsua izatekotan, berdin jokatuko duzu?

- Orain berri hasi naizenez, ez dakit ba. Gainera, nire taldekide batzuren iritziz, zuetako asko ez zarete lagun onak...

• Gezurretan ari dira...

- Bakan batzuk izango dira, beraz.

• Eta zer diozu Alavesen alkondara berriari buruz?

- Ezbairik gabe, kamiseta aldaketa handia izan da. Hasieran harritu ninduen, baina ohitu egiten zara, gainera ez dago zer egiterik.

Ismael Diaz de Mendibil



Edorta Sanz

# EUSKARA



Hamaika urte zurekin



, ZURE BETIKO EUSKALTEGIAK”

**2, 3 eta 5 orduko  
IKASTAROAK**

**Maila guztiak:  
EGA, MINTZA eta  
SAKONTZE**

\*HABEren dirulaf;guntzaz antolatua

**MATRIKULAZIO EPEA:  
Irailak 1 - irailak 21**

**INFORMAZIOA:  
GASTEIZ EUSKALTEGIA  
Errege-erregina katolikoak 15-C • 945 28 89 22**

**PINTO EUSKALTEGIA  
Pinto 74 • 945 28 97 80**

**ZALDIARAN EUSKALTEGIA  
Badaia, 25 • 945 24 49 05**

## EUSKALDUNON GIDA 2000-2001

**EUSKALDUNOK  
EUSKARAZ  
BIZITZEKO  
BEHAR DITUGUN  
ZERBITZUAK  
EZAGUTARAZIKO  
DUNEN GIDA**




Euskaldunon Gida, euskaraz atenditzen duten enpresa, profesional, merkatar, erakunde eta norbanakoak biltzen dituen gida da. Euskaldunenez osaturik dagoen gida bakarra, inoiz Euskal Herrian egin den maparik osatuena da. Ez da euskarazko gida, euskaldunenez osaturik gida baizik. Bi urtetik behin argitaratzen da eta abenduan kaleratuko den gida berrian 30.000 fitxa inguru agertuko dira.

**GIDAN AGERTU NAHI BADUZU DEITU 945 22 21 53 TELEFONO ZENBAKIRA (GEU GASTEIZ ELKARTEA ETA ALDIZKARIA) ETA BEHAR DUZUN INFORMAZIO GUZTIA EMANGO DIZUGU: doan agertzeko aukera, modulu desberdinak erosteko aukera... Denetik eta denontzat!**

# “NEU”

# BAT



Hasi berriak diren arren badirudi aspaldidanik bizi direla rock-aren munduan. Ez dabilta komertzialtasunaren bila. Helburu garbia dute: beren musikaz pozik egotea. Lehendabiziko urratsak gauzatzen ari den talde gasteiztar baten istorio laburra da hau. Istorio laburra, baina baita interesgarria ere.

aurretiko taldearen musikarekin. Dena den, Imanol eta Aitor ez zeuden Oscarren mainetatik urrun. Eta horri guztiari nire eraginak eta Gaizkarenak lotzen badizkiogu estilo bereziko musika dugu emaitza.

- Ausartuko al zara “Neu” bat-en estiloa definitzen?
  - Zaila izango dut hori. Dena dela, zuzenekoak bilatzen ditugunean ahalegindu behar dugu gure musika mugatzen; aurkezpenezko gutuna ematen, hain zuzen. Halakoetan nahiago dugu gure tankerako talde ezagun baten izena eman gure musika definitu baino. Korn izaten da askotan aipatzen dugun taldea.

- Maketarik gabe zuzenekoak erdieste oso gaitza izango da.
  - Gaztetxe askori deitzen diogu telefonoz, baina taldearen izena ezezaguna denez ezetz erantzuten digute maiz. Hala ere, ez dugu amore eman behar, baizik eta aurrerantz jo. Azken bolada honetan, laguneren bitartez batzuetan, eta tinko irautearren bestetan, zuzenekoren bat lortu dugu.

## “Abesti onenak bat-batean sortzen dira, denon artean eta lokalean”

Igor gitarran, Imanol baterian, Oscar ahotsa eta erritmo-kutxan, Aitor baxuan, eta Gaizka baita gitarran ere. Abeslaririk gabe hasi ziren arren, lehenengo pausoa gogoz bete zuten: taldea egitea, alegia. Estreinako egunetik euren abestiak sortzen ahalegindu ziren, bertsiok alde batera utziz. Abeslaria aurkitzea ez zuten lan erraza izan. Bai taldeak abeslarigaiak atsegin ez zituelako, bai abeslarigaiak taldea atsegin ez zutelako, bazirudien “Neu” Bat-en kantaria ez zela inoiz helduko. Azkenik, duela bost hilabete Oscar, Factor Resus taldearekin koruetan eta erritmo-kutxan aritu izana, agertu zen taldea osatu zelarik. Honetaz guztiaz Igorrekin egon ginen berbetan.

- Oscarren etorrerak nolabait aldatu zuen taldearen musika tankera?
  - Bai, Oscarren asmoak ez zuen zerikusirik bera sartu

- Taldekideren batek oraindik ere ez ditu hogei urte bete. Hain gaztea izateak ba al du alde onik?
  - Nahiz eta oso gazteak garen, estilo ezberdinetako musika entzuten dugu. Txikitan denok genituen gogoko talde “kañeroak”: Metallica, Guns and Roses edota Su Ta Gar, besteak beste. Eraginez eta ideiaz beterik gaude. Zuzenean jotzeko gogo handia dugu. Erakutsi nahi dugu nolakoa den gure soinua.

- Eta alde txarrik?
  - Zenbait urte daramagu gure musika tresnak jotzen. Hala ere, asko ikasi behar dugu oraindik. Bakarrik jotzea eta talde bat osatzea ez dira gauza bera. Gazteak gara bai, baina oraino inork ez digu adarrik jo gazteak izatearren... Alde txarrik, diozu? Dirua behar dugu lokalaren errenta-saria ordaintzeko, tresnak erosteko eta tresnak eurak egoera onean mantentzeko. Bestaldetik, gasolina eta telefonoa ez dizkigu



inork oparitzen. Denak ari gara ikasten, beraz, diru gutxi dauka-gu. Lan egin behar dugu ikasturtean zehar edo udan, eta aurrez-ten duguna taldean jartzen dugu. Gurasoen etxean bizi gara, baina eurek ez dute zertan gure zaletasuna ordaindu.

- Ikasketek, beraz, ez dizuete en-tseiuetarako asti larregirik utziko.
- . Gutxi. Egia esan, ez dakit beste taldeek denbora luzea emango duten entseiuetan, baina gu, ikas-turtean zehar, asteburuetan bakarrik ari gaitzke musikan.



- Gaztea izateak musika "kañeroan" aritzea dakar?

- . Nik uste baietz. Gazteak gara. Gogoa eta kemena soberan ditugu, ez gara geldirik egoten eta gauza berriak bilatzen ditugu, eta jakina, hori guztia gure musikan islatzen da. Zerbait berria eta indar handikoa egin nahi dugu.

- Gazteak eta berritzaileak, beraz.
- . Bai, ez dugu betikoa egin nahi. Klasikoa baztertzen dugu. Ahalegiten gara gaurkoak izaten, berriztatzen.

- Berriztatzen saiatzen zaretela diozu. Nola?
- . Gitarraren pedalaren efektuak ahotsean sartuz, edota afinazio alternatiboak bilatuz, adibidez. Bestetik, egitura berriak eman nahi dizkiegu gure abestiei geldiuneak eta erritmo aldaketen bidez.

- Kantak sortzerakoan talde bat zarete?
- . Orokorrean bai. Dena den, horrek ez du esan nahi kanta denak hasiera-hasieratik denon artean egiten ditugunik. Batzuetan batek ideia bat ekartzen du lokalera eta denon artean garatzen da. Hala ere, ez duzu pentsatu behar nork bere musika-tresna bakarrik gehitzen duenik. Oskarrek, adibidez, tresna asko jotzen dakienez, bateria, gitarra, baxua, edo ahotsaren tar-teak sor ditzake, abestiak nabarmenki aberasten dituelarik. Dena dela, abesti onenak bat-batean sortzen dira, denon



artean eta lokalean.

- Eta emaitza denek izan beharko duzue gogoko.
- . Bai. Ahalegiten gara behintzat. Gure ustez abesti bat amaitzen da ezer sobera eta falta ez zaiola sentitzen dugunean.

- Hasieran ez zenuten bertsiorik egin nahi. Orain bai?
- . Zuzenean bertsioaren bat egitea ondo dago. Ezaguna ez zarenean entzuna duten zerbait eskaini behar zaie entzuleei, hori baita jendea erakartzeko era ona. Soziedad Alkoholika eta Blur-en kanta bana jotzen dugu, gure erara jakina.

**"Lagunen bitartez batzuetan, eta tinko irautearren beste batzuetan, zuzenekoaren bat lortu dugu".**

**"Gazteak gara bai, baina oraino inork ez digu adarrik jo gazteak izatearren".**

**"Ahalegiten gara gaurkoak izaten, berriztatzen".**

- Bertsioez gain, zuek sortutako abestiez kontzertu oso bat bete dezakezue?

- . Bai. Dena den gure zuzenekoek ez dute luze irauten. Gainera, ezaguna ez zarenean ez duzu zuzeneko luzerik egin behar entzuleak asper ez daitezten. Gaur egun gure kontzertuek laburrak eta indartsuak izan behar dutelakoan gaude, gure arrastoa uzteko modukoak, hain zuzen.



- Abesti guztiak euskaraz egiten al dituzue?

- . Bai, bertsioak izan ezik, bai. Hitzak Oskarrek idazten ditu. Ez du nahi beste batek egitea, pentsatzen duelako hitzak sentitzeko nork bereak egin behar dituela. Eta zergatik euskaraz? Euskaldunak garelako eta euskaraz egin nahi dugulako, besterik ez.

- Maketa bat laster?

- . Ez, nahiago dugu kontzertuetan aritzea, gure izena zabaldu behar dugu eta. Ez dugu uste maketa bat ezinbestekoa denik. Tabernak maketaz beterik dauden arren, oso lagun gutxik ezagutzen ditu taldeak. Gainera, taldearen soinua hobeto entzuten da zuzenean maketan baino.

**HARREMANETARAKO TELEFONOA.**  
**945.24.66.57. (Oscar)**

 Txabi Arnal-Gil  
 Edorta Sanz

# SOINUAK DENBORAN ZEHAR

## LOS SENCILLOS.

“De Placer”. ARIOLA, 1990.

Askoren ustez edozein bakarlari edo talderen estreinako lana freskoena eta, beraz, onena izaten da. Eta guk, gehienetan aburu horrekin bat ez gatozen arren, onartu behar dugu Los Sencillos talde katalanari dagokionez egia dela. De Placer disko ezin freskoagoa da, indarrez eta gogoz beteriko bost gaztetxok sortutako pop disko bikaina. 1990. urtean Estatuko musika merkatua talde finkatuen menpean zegoen. Radio Futura, Loquillo edota Gabinete Caligari-k ez zuten asko arriskatu behar zerrendetako lehenengo postuetara iristeko. Ez, egia esan, Espainako musikaren egoera ez zen garai latz batetik pasatzen ari. Hala ere, freskotasuna desagertzen ari zen; produkzioek lekua bereganatzen zieten abestiei eurei. Eta urte hartan, hain zuzen, Los Sencillos-en lehendabiziko grabazioa kaleratu

zen hamaika abesti ederrek osatuta. Micky Puig-ek eta bere lagunek urte hartako onena eman ziguten: melodia sendoz beteriko pop abestiak; dantzarako musikatik gertu batzuetan, 60. hamarkadaren pop tankerak kontuan hartuz beste batzuetan eta, noizean behin, artifiziorik gabeko rock and roll-ari tartetxo bat eskainiz. “No, Por Eso No (Quiero Que Tú Te Vayas De Aquí)” entzun bezain laster ulertu genuen Los Sencillos-ekoek gaztetu eta berriztatu nahi zutela orduko musika giroa. Ondorengo diskoetan dance eta groove estiloetarantz hurbilketa gertatu zen. Los Sencillos berriztapenaren bila zihoazen, baina bidetik abesti ederrak ahaztu zituzten. Berdin dio. Hori beste istorio bat da. Orain entzun itzazu “Mala Mujer”, “Estuve de Vinos Por Ti”, “Por la Noche” edota “Lluvias” abestiak, eta utzi duela



bederatzi urte grabatu disko honek udaren amaiera freska diezazula.

*Txabi Arnal-Gil*

## ARABAKO TALDEAK

### BOUNZIN

Isik, Albertok eta Jesusek hamaika abesti biltzen dituen CD on bat dute grabatuta. Ea zer entzun daitekeen disko horretan? Nahasketa interesgarri bat: industri-soinuk, BIT-ek eta metalak osatutako nahasketa bat, hain zuzen. Hip-hop-etik etorritako ahotsak, dantzarako musika, konpromisozko hitzak eta gitarra zorrotzak. Telefonoa. 939.355.439.

### JOSU BRAVO

Gitarra eta pianojolea, kantautore, oso gaztea, pop-rock zalea eta bi sari aipagarrien irabazlea: Arabako eta Euskadiko Haur Kantu Txapelketak, 1995ean biak. Garai hartan telebistan ikusi ez zenuela? Dei izeaiozu, bada, eta berak gogoz joko du zure aretoan edo herrian.

Telefono zenbakia.  
945.25.11.71.

### APOTHEKE

Hamar urte errepedean, kontzertu ugari eta bi maketa curriculumean; lehenengoa, Sin Ningún Interés izenpean 1991ean grabatutakoa, eta bigarrena, Ar!, 1995ean kaleratutakoa. Errioxan eta Burgosen ezagutzeko zenbait aukera izan dute, eta zuk, gasteiztarra zaren arren, ez duzula sekula Apotekeran musika entzun? Kontaktua. 945.13.58.68.



**KAMISETAK:** Opariak eta euskal oroigarriak  
Kukuxumusu, Kot, Euskal oihalak: mantelak, zapiak...  
PERRETXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

# NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5  
Mateo de Moraza, 7

**GASTEIZ**

Tel./faxes: 945 232229  
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DENBORA

# ZURE HARATEGIAK

Jose Luis  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13  
☎ 945 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17  
☎ 945 27 07 90  
GASTEIZ

XABIER  
**AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3  
☎ 945 13 24 48  
ABASTOS AZOKA 2 eta 3  
☎ 945 26 78 97



**JOSEBA**  
HARATEGIA

Paraguay merkatua  
10 El Pilar auzoa  
☎ 945 25 66 89  
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak*



**adaka**  
**madinabeitia**

**Floridako  
altxorra !**

**35**



Errege Atea, 9 - GASTEIZ  
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak  
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!  
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**JANTZI  
ETA  
OPARIAK**


Aiztogile kalea (Kutxi), 27  
Tfnoa: 945 26 07 10  
GASTEIZ

**UDABERRIA**

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33  
**GASTEIZ**



**JATETXEA**

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47  
**GASTEIZ**

**EUSKAL LABELA  
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko  
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

## Ajenda

*Abuztua joan zaigu, eta udak bere lekua utziko dio udazkenari, baina oraindik baditugu egun batzuk gozatzeko, behintzat hala uste du Udalak, bere udako programazioa irailan aurrera badoa eta.*

### UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUAK

Igandea 12  
12:30etan Florida Parkean

Igandea 19  
12:30etan Florida Parkean

Osteguna 23  
12:30etan Arka Plazan

Igandea 26  
12:30 Florida Parkean

### FLORIDA PARKEKO DANTZALDIAK

19:30etan Florida  
Parkean

Larunbata 4:  
LOS PALMERAS taldea  
Larunbata 11:  
ARENAL taldea  
Larunbata 18:  
LOS PALMERAS taldea  
Larunbata 25:  
BAILONGO taldea

### DANTZA PLAZAN

Astelehena 13  
18:30etan Olarizun

### MATXETEJAI

Larunbata 4, 23:00etan  
MIKEL TELLERIA eta taldea.



Poesia eta musika elkarrekin doazenean hau bezalako taldeak sortzen dira. Kantautore bat eta bere talde akustikoa entzuna izateko musika lantzen.

### Larunbata 11, 23:00etan

Arabako Ilusionisten Elkartea.

Gasteizko hainbat mago bikainek tamaina handiko truku eta ilusioekin harrituko gaituzte.

### Larunbata 18, 23:00etan

C.C.P. (Cuerda Con Percusion)

Pailak, bongoak eta salsa handia uda aldiari amaiera emateko hiriko talde gazte baten eskutik.

## MUSIKA LORATEGIAN eta KLAUSTROAN

### Ostiralero Musika Etxeko lorategian, 19:30etan

#### Ostirala 10

"Luis Aramburu" udal musika eskolako ikasleak, akordeoi errezitaldia: David Gordo, Leire Mugira, Maialen Olabe, Naiara de la Puente.

#### Ostirala 17

Trovadores de Palacio. Musika errenazentista, folk, arabiarra, ekialdekoa, marokokoa...

#### Ostirala 24

Boreas Cámara

Musika errenazentista, barrokoa, Erdi Arokoa...

## MUSIKA MONTEHERMOSON

### Ostirala 13 - 20:30etan

QUIMERA (folk)

### Ostirala 24 - 20:30etan

BACKSTAGE (soul).



**MIKO**  
izozkiak



**GORETTI**  
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ



**PLATÓ**  
TABERNA

Zaldieran Plaza, 10 · Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

**LA RIOJANA**  
jatetxea

on egin!  
bokatak,  
pintxoak,  
kazulatroak


Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



**IRUSTA**  
poteo eta pintxoak  
ESPEZIALITATEA:  
Patata tortila • Otartekoak  
TABERNA  
Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33  
GASTEIZ



# Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUTAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

| <b>BULEGOAK</b>   | <b>ZERBITZUA</b>                | <b>Helbidea</b>              | <b>Tfnoa.</b> |
|---|---------------------------------|------------------------------|---------------|
| Udaletxea   | Udal informazioa                | Espainia plaza, 1            | 010           |
|   | Argibideak eta Erregistroa      | Espainia plaza, 1            | 16 11 88      |
|   | Errolda                         | Espainia plaza, 1            | 16 11 06      |
|   | Funtzio Publikoa                | Espainia plaza, 1            | 16 11 41      |
|   | Gazteen Argibide Bulegoa        | Espainia plaza, 1            | 16 13 30      |
|   | Idazkaritza                     | Espainia plaza, 1            | 16 13 20      |
|   | Prensa Bulegoa                  | Espainia plaza, 1            | 16 13 37      |
|   | Zerbitzu Orokorrak              | Espainia plaza, 1            | 16 13 08      |
| Udala<br>(Dato kalea)                                       | Borondatezko Diru Bilketa       | Dato kalea, 11               | 16 16 68      |
|   | Zergen Gestioa                  | Dato kalea, 11               | 16 11 33      |
| Udala<br>(S. Prudentzio kalea)                              | Gizartegintza                   | S. Prudentzio kalea, 30      | 16 13 44      |
|   | Arkitektura                     | S. Prudentzio kalea, 30      | 16 13 01      |
|   | Ingurugiroa                     | S. Prudentzio kalea, 30      | 16 11 20      |
| Udala<br>(Etzanobetarren etxea)                             | Emakumeentzako Zerbitzua        | Sta. Maria kalea, 11         | 16 13 25      |
|   | Euskara Zerbitzua               | Sta. Maria kalea, 11         | 16 15 22      |
| Udal artxiboa   | Argibideak                      | Unibertsitateko ibilbidea, 1 | 16 14 99      |
| Etxebizitza eta Hiri<br>Berrikuntzarako<br>Udal Eragintegia | Argibideak                      | Espainia plaza, 1            | 16 12 87      |
| Kultura   | Argibideak                      | Goiuri jauregia (Villa Suso) | 16 12 70      |
| Hezkuntza   | Argibideak                      | Frai Zacarias kalea          | 16 12 16      |
| Ekonomi Sustapena   |                                 | Frai Zacarias kalea          | 16 12 11      |
| Gizarte Etxeak  | Hegoalde                        | Alberto Shommer kalea, z/g   | 16 18 80      |
|   | Iparralde                       | Zuberoa plaza, z/g           | 16 17 50      |
|   | Judimendi                       | Sefarad plaza, z/g           | 16 17 40      |
|   | Lakua                           | Etzanobetarren zidorra, z/g  | 17 17 81      |
|   | Aldabe                          | Eulogio Serdan Pasabidea, 2  | 16 19 19      |
| Montehermoso<br>Kulturunea                                  | Argibideak                      | Frai Zacarias kalea, 2       | 16 18 30      |
| Europa gizarte-etxea  | Argibideak                      | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 12 31      |
|   | Biltzar eta Turismo Zerbitzua   | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 12 61      |
|   | Kontzientzia Eragozpena         | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 36 91      |
|   | Kirola                          | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 15 61      |
|   | Europar Mugimenduaren E.K.      | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 15 57      |
|   | Elkarte eta Bolondresentzako Z. | Gasteiz hiribidea, 85        | 16 19 48      |
| Udaltzaingoa  | Administrazioa                  | Agirrelanda, 8               | 16 14 58      |
|   | Antolakuntza                    | Agirrelanda, 8               | 16 16 60      |
| Turismo bulegoa   | Argibideak                      | Dato, 11                     | 16 15 99      |



**IKATZ**  
FOTOGRAFIA • IMAGEN

# ERREBELATUAN ESKAINTZA



**4 Rollo errebelatu eta 3 ordaindu  
Banaka ekar ditzakezu**

## **GASTEIZ**

Gorbea, 44 (Esquina Cruz Blanca)

Dendaraba

Plza. Barandiarán, 1

Ecocentro-Ptal. de Villarreal

Jacinto Benavente, 39 (Estudio)

Polvorín Viejo, 9

Denda  
berria

## **BILBO**

Alameda de Urquijo, 11  
(Coliseo Albia ondoan)

## **DURANGO**

Barrenkale, 26  
(Udala ondoan)

Denda  
berria

## **BASAURI**

Plz. Arizgoiti, 6

Denda  
berria

## **EIBAR**

Julián Etxeberría, 11

## **ARRASATE**

Iturrioz, 8

## **MIRANDA DE EBRO**

San Agustín, 20



**IKATZ**  
FOTOGRAFIA • IMAGEN